Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

2787

AGINDUA, 2009ko apirilaren 23koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Lagun Aro fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Bilboko (Bizkaia) Lagun Aro fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskabidearen espedientea ikusi da.

AURREKARIAK

1.– Seguros Lagun Aro SAk eta Seguros Lagun Aro Vida SAk fundazio bat eratu dute, hain zuzen Lagun Aro fundazioa. Horretarako, Lagun Aro fundazioa eratzeko eskritura publikoa egin zen 2008ko urriaren 28an. Pablo Mongelos García jaunak eman zuen eskritura hori, Seguros Lagun Aro SAren eta Seguros Lagun Aro Vida SAren izenean eta ordezkaritzaz, Juan Ignacio Gomeza Villa Bilboko notarioaren aurrean (protokolo-zenbakia: 2.125).

Horretarako eskaria eginik, 2009ko martxoaren 3an sarrera eman zitzaion osatzeko eskritura publikoari. Eskritura hori 2009ko otsailaren 16an eman zen, notario beraren aurrean (protokolo-zenbakia: 705). Sartu zen, orobat, eratze-estatutuen 10. artikuluaren zatizko inskripzioa lortzeko eskaria.

2.– Lagun Aro fundazioaren helburua estatutuen 3. artikuluan dago jasota:

– Kultura-ekimenak: euskara sustatu eta haren alde egiteko jarduerak bultzatu, egin, babestu eta finantzatzeko direnak, diru-laguntzak, bekak eta laguntzak emanez, hizkuntza-programak, azterlanak eta argitalpenak gauzatzea helburutzat hartuta, edo haiekin erabakitzen den moduan elkarlanean aritzeko direnak.

– Kirol-ekimenak: kirol ez-profesionala sustatu eta haren alde egiteko jarduerak bultzatu, egin, babestu eta finantzatzeko direnak, kirol ekitaldi ez-profesionalei diru-laguntzak emanez eta kirol erakunde ez-profesionalen babesle izanez, edo haiekin erabakitzen den moduan elkarlanean aritzeko direnak.

– Ongintza-sorospeneko ekimenak: trafiko-istripuak saihesteko ekimenak sustatu, gauzatu, babestu eta

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

2787

ORDEN de 23 de abril de 2009, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se inscribe en el registro de fundaciones del país vasco la denominada Fundación Lagun Aro - Lagun Aro Fundazioa.

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la denominada Fundación Lagun Aro - Lagun Aro Fundazioa, de Bilbao (Bizkaia), sobre la base de los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

1.– Por Seguros Lagun Aro, S.A. y Seguros Lagun Aro Vida, S.A. se ha constituido la Fundación denominada Fundación Lagun Aro - Lagun Aro Fundazioa, mediante Escritura pública de constitución de la Fundación denominada Fundación Lagun Aro - Lagun Aro Fundazioa, otorgada el 28 de octubre de 2008 por D. Pablo Mongelos García, en nombre y representación de Seguros Lagun Aro, S.A. y Seguros Lagun Aro Vida, S.A., ante el Notario de Bilbao, D. Juan Ignacio Gomeza Villa, número 2.125 de su protocolo.

Tras requerimiento al efecto, el 3 de marzo de 2009 tiene entrada la Escritura pública de complemento otorgada el 16 de febrero de 2009, ante el mismo Notario, número 705 de su protocolo, así como solicitud de inscripción parcial del artículo 10 de los Estatutos fundacionales.

2.– El fin fundacional de la denominada Fundación Lagun Aro - Lagun Aro Fundazioa, viene establecido en el artículo 3 de su norma estatutaria:

– Actividades Culturales: con la finalidad de promover, realizar, apoyar y financiar actuaciones en el ámbito del fomento y defensa del euskera, a través de la concesión de ayudas económicas y concesión de becas y ayudas para el desarrollo de programas lingüísticos, estudios y publicaciones o cooperar con éstos en la forma en que se determine.

– Actividades Deportivas: con la finalidad de promover, realizar, apoyar, financiar y fomentar actuaciones en el ámbito del deporte no profesional, a través de la concesión de ayudas económicas a eventos deportivos no profesionales y patrocinios a entidades deportivas no profesionales o cooperar con éstos en la forma en que se determine.

– Actividades Benéfico-Asistenciales: finalidad promover, realizar, apoyar, financiar y fomentar actuacio-

finantzatzeko direnak, bai eta istripua izan duten pertsonei eta beren senitartekoei laguntzeko direnak ere. Horretarako, diru-laguntzak emango dira eta laguntza eskainiko da istripuak prebenitzeko eta bide-segurtasuna sustatzeko programak garatu eta zabaltzeko, baldin eta programa horiek arlo horretako erakunde aditu publiko nahiz pribatuek egin badituzte.

3.– Fundazioaren egoitza, fundazioaren estatutuetako 1. artikuluan jartzen denez, hau da: Basurtuko Kaputxinoen kalea 6 (48013 PK).

4.– Hasierako dotazioa laurogeita hamar mila (90.000) eurokoa da, eta kopuru hori ordaindu dela jasota geratu da erregistro-inskripzioan, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 37.1.c artikuluak.

Ondarea egokitzat eta askitzat jotzen da fundazioaren helburuak lortzeko, Fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legearen 12.1 artikuluaren arabera, lege hori aplikatzekoa baita azken xedapenetatik lehenengoaren indarrez.

5.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, Fundazioaren Estatutuetako 10. artikuluan jartzen duen moduan.

6.– Fundazioa eratzeko eskrituran ezarritakoaren arabera, hauek izango dira patronatuko kide:

nes en materia de prevención de los accidentes de tráfico, así como la asistencia y atención con las personas directamente accidentadas y sus familiares, todo ello, mediante la concesión de ayudas económicas y colaboración en el desarrollo y difusión social de programas tendentes a la prevención de accidentes y promoción de la seguridad vial llevados a cabo por entidades u organizaciones expertas en la materia, tanto públicas como privadas.

3.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 1 de los Estatutos fundacionales, queda fijado en Bilbao, calle Capuchinos de Basurto, n.º 6 (CP 48013).

4.– La dotación inicial asciende a la cantidad de noventa mil (90.000) euros, cuyo desembolso es acreditado documentalmente en el expediente de inscripción registral, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37.1.c) del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

La dotación patrimonial se acredita como adecuada y suficiente para el cumplimiento de los fines fundacionales, de acuerdo con el artículo 12.1 de la Ley 50/2002, de 26 de diciembre de Fundaciones, de aplicación en virtud de su Disposición final 1.ª.

5.– La representación, administración y gobierno de la Fundación se confía al Patronato, cuyos miembros desempeñarán sus cargos con carácter gratuito, de acuerdo con el artículo 10 de los Estatutos fundacionales.

6.– El Patronato inicial, conforme se establece en la escritura de constitución fundacional estará integrado por,

	- Nork izendatua:	Indarraldia
Francisco Javier Urtasun Zabalo jauna	Seguros Lagun Aro, S.A.	2012-10-28
José Javier Yaniz Herrera jauna	Seguros Lagun Aro, S.A.	2012-10-28
Jesús Arraiza Martínez de Lagrán jauna	Seguros Lagun Aro, S.A.	2012-10-28
Juan María Otaegui Murua jauna	Seguros Lagun Aro Vida, S.A.	2012-10-28
«Euskadiko Kutxa, Kreditu Kooperatiba», Juan Manuel Sinde Oyarzabal jauna ordezkari fisikoa duela	Seguros Lagun Aro Vida, S.A.	2012-10-28
«Lagun Aro EPSV», Luis María Ugarte Azpiri jauna ordezkari fisikoa duela	Seguros Lagun Aro Vida, S.A.	2012-10-28

	Designado por	*Vigencia*
Don Francisco Javier Urtasun Zabalo	*Seguros Lagun Aro, S.A.*	*28-10-2012*
Don José Javier Yaniz Herrera	*Seguros Lagun Aro, S.A.*	*28-10-2012*
Don Jesús Arraiza Martínez de Lagrán	*Seguros Lagun Aro, S.A.*	*28-10-2012*
Don Juan María Otaegui Murua	*Seguros Lagun Aro Vida, S.A.*	*28-10-2012*
«Caja Laboral, Cooperativa de Crédito», siendo su persona física representante don Juan Manuel Sinde Oyarzabal	*Seguros Lagun Aro Vida, S.A.*	*28-10-2012*
«Lagun Aro EPSV», siendo su persona física representante don Luis María Ugarte Azpiri	*Seguros Lagun Aro Vida, S.A.*	*28-10-2012*

Guztiek onartu dituzte dagozkien karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari dagokio fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 4. artikuluan.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako eskakizunak.

Lege eta arau hauek ikusi dira: indarrean dagoen Konstituzioa; Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretua, eta orokorrean aplikatzekoak diren gainerako arauak. Ondorioz,

Todos y cada uno de ellos han aceptado sus respectivos cargos conforme las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde al Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social dictar, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y el artículo 4 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello, y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y 36 y ss. del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Vistos la Constitución vigente, el Estatuto de Autonomía del País Vasco, la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 100/2007, de 19 de junio, el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio, y demás normas de general y pertinente aplicación.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Gaur, F-244 zenbakiaz, Bilboko (Bizkaia) Lagun Aro fundazioa delakoa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira eta guztiek berariaz onartu dituzte beren karguak. Fundazio-estatutuetako 10. artikuluaren zati bat inskribatzen da, artikulu horren 1. paragrafoa kanpoan utziz.

Bigarrena.– Fundazio hori, dituen helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 4. sekzioan sailkatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza Antolatu eta Jardunean Jartzeko Erregelamendua onartzen duen urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren 14. artikuluan agindutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 23a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,

RESUELVE:

Primero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de registro F-244, de la constitución de la denominada Fundación Lagun Aro - Lagun Aro Fundazioa, de Bilbao (Bizkaia), así como de la composición inicial del Patronato integrado por los miembros que figuran en el antecedente sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos. Se inscribe parcialmente el artículo 10 de los Estatutos fundacionales, con exclusión del párrafo número 1 del citado artículo.

Segundo.– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 4.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, conforme lo dispuesto en el artículo 14 del Decreto 404/1994, de 18 de octubre, que aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Protectorado y Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante este Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de abril de 2009.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.